

# ERREREFUXIATUAK



**FAMILIA GROAREN BILA  
HERRITIK KANPO**



**Batxilergo  
1-2  
Lan Koaderno**



## 1 JARDUERA

Internet baliatuz,  
bilatu honako terminoen definizioa

ERREFUXIATUA	
BARNEKO DESPLAZATUA	
HERRIGABEA	



# Errefuxiatuak ikusi ez arren, existitzen dira

Gaur egun 35 milioi pertsona inguru daude munduan, egun batetik bestera, euren ondasunak jaso eta jaioterria utzi behar izan dutenak. Errefuxiatuak eta desplazatuak dira. Horietatik % 80 emakumeak eta haurrak dira.

Hauek dira bat-batean etxea utzi behar izatearen arrazoi nagusiak:

1. Gatazka armatuak. Gerrak eragindako izuaren ondorioz, komunitate osoak, euren jaioterria utzi behar izaten dute, gehienetan soinean dutenarekin bakarrik. Gizonezkoak borrokan geratzen dira, eta emakumeek seme-alabekin ihes egiten dute, babesak aurkituko duten lekuren baten bila. Batzuetan herrialdean bertan aurkitzen dute babesak; beste batzuetan, ordea, mugaz haratago joan behar izaten dute.

# FAMILIA giroaren bila HERRITIK kanpo

2. Ingurumenaren degradazioa. Lurren gehiegizko ustiapenak eta klima-aldaketaren efektuek desertizazioa eta lehortea eragiten dute. Lurrak gero eta gutxiago ematen du, eta herrietako biztanleek alde egin beharra dute, lursail emankorragoen bila. Munduko Bankuaren esanetan, urtero 10 milioi pertsona inguruk lekuz aldatu behar izaten dute, proiektu handien ondorioz: presak, urbanizazioak edota meatzetako ustiapenak.



3. Arrazoi desberdinengatik jazarpena: politika, arraza, erlijio edo generoa. Zenbait pertsonak euren jaioterria utzi behar izaten dute, ideia politiko edota erlijio jakin bat dela-eta jazarpena jasaten dutelako (adib: kristauak Txinan, Sudanen...). Herrialde batzuetan (islamismo erradikalaren eraginpeko herrialdeetan gehienbat), emakumeek gizonek baino eskubide gutxiago izan ohi dituzte, emakume izate hutsagatik.

Errefuxiatuen kolektiboan ez ditugu etorkin ekonomikoak sartu behar. Izan ere, horiek, euren borondatez uzten dute jaioterria, bizimodu hobea baten bila. Halako batean, jaioterrira itzultzen badira, hango gobernuaren babesa izaten jarraituko dute. Errefuxiatuek jazarpen baten ondorioz utzi behar izaten dute jaioterria, eta ezinezkoa zaie baldintza seguruetan itzultzea, herrialde horretako egoera nabarmen aldatzen ez bada behintzat (adib: bake-akordio iraunkorra, gobernu-aldaketa).



## DATU



## INTERESGARRIAK

Munduan 100 **errefuxiatu** baino egongo ez balira

41 Ekialde Hurbilean biziko lirateke  
 23 Afrikan  
 16 Asiako Erdialdean eta Hegoaldean  
 7 Asiako Hego Ekialdean  
 6 Europan (horien erdiak Balkanetan)  
 5 Amerikan (ia gehienak Ipar Amerikan)

Munduan 100 **desplazatu** baino egongo ez balira

51 Afrikan biziko lirateke  
 15 Asian  
 14 Latinoamerikan (ia denak Kolonbian)  
 12 Europan (ia gehienak Balkanetan)  
 8 Ekialde Hurbilean



## 2 JARDUERA


# Giza Eskubideen Alderazpen Unibertatsala

15. artikulua.

1. Pertsona orok du naziotasuna izateko eskubidea.

2. Ezin izango zaio inori bere naziotasuna arrazoirik gabe kendu, ezta naziotasuna aldatzeko eskubidea ukatu ere.

## Inor ez izatea



### Zer da naziotasuna?

Pertsona baten eta Estatu baten arteko lotura juridikoa da naziotasuna, Estatu horren legedian ezartzen den legez. Naziotasunak zenbait eskubide ditu berekin (eskubide politikoak, ekonomikoak, sozialak eta beste era batekoak), baita Estatuaren eta gizabanakoaren erantzukizunak ere.

### Zein dira aberrigabeak?

Lege nazionalen arabera Estatu batekin naziotasunaren lotura juridikoa ez duten pertsonak dira aberrigabeak. 1954ko Aberrigabeen Estatutuari buruzko Konbentzioko 1. artikuluan, hauek hartzen dira aberrigabetzat: Estatu batek, bere legeei jarraituz, automatikoki herritar nazionaltzat hartzen ez dituen pertsonak.



### Nola ematen da naziotasuna?


Estatuek ematen dute naziotasuna; batez ere, haietako lurraldean jaiotzeagatik edo seme-alabak guraso baten edo bien naziotasuna hartzeagatik, edo bi kausa horienagatik aldi berean. Estatu askotan, haietan urte kopuru jakin batez bizi izan diren pertsonak naziotasuna lor dezakete, baita Estatuarekin beste loturaren bat ezarri dutenek ere; esate baterako, bertako pertsona batekin ezkondu direnek. Hala ere, bi kasu horietan lortutako naziotasuna zenbait baldintzaren mende dago.

Aberrigabeziaren arazoa da nazioartean gaur egun gutxien ezagutzen eta lantzen direnetako bat. Oinarrizko zenbait eskubide gauzatzeko, ezinbestekoa da aldeztu aurretik naziotasun jakin bat izatea; hala nola, hezkuntzan sartzeko, osasun-laguntza jasotzeko, lana izateko, ondasunak izateko, herrialde batetik bestera aske ibiltzeko, beste eskubide zibil eta politiko batzuk gauzatzeko, eta azken batean, nazioartean laguntza eta ordezkaritza izateko. Horrenbestez, naziotasunik ez duten pertsonak ez dira pertsonatzat hartzen gaur egungo nazioarteko komunitatearen barruan, estatu-nazioek osatutako komunitatean, alegia.

## Nola bihurtzen dira pertsonak aberrigabe?

Hona hemen pertsonak aberrigabe bihurtzeko kausak:

- Estatu baten edo gehiagoren lurraldea edo subiranotasuna aldatu eta haletako herritarren naziotasun-egoera aldatzean, zenbat pertsona naziotasunik gabe geratzea.
- Estatuak zenbait talderi edo gizabanakori naziotasuna arrazoirik gabe kentzea edo naziotasuna ukatzea.
- Lege-gatazkak; esate baterako, naziotasuna gurasoak bertakoak direnean soilik ematen duen Estatu batean haur bat jaiotzen bada, eta haren gurasoen Estatuak, legeen arabera, naziotasuna bertan jaiotakoei soilik ematen badie.
- Administrazio- edo prozedura-arazoak; naziotasuna berresteko edo lortzeko zergak oso handiak izatea, epeak bidezkoak ez izatea, apelazioa edo berrazterketa eskatzeko prozedurarik ez egotea, erregistratzeko betebeharren edo bestelako betebeharren berri ez ematea, eta dokumentuak lortzerik edo irizpideak betetzerik ez izatea.
- Norberak bere naziotasunari uko egitea, aurrez beste naziotasun bat lortu gabe edo hura lortzeko bermea izan gabe.
- Ezkontza edo ezkontza deuseztatzea, naziotasuna horren ondorioz automatikoki galtzen bada (emakumeek dute horren ondorioz aberrigabezia-egoeran geratzeko arriskurik handiena).
- Seme-alaba jaiotzean ez erregistratzea. Hau da, pertsona horrek, gerora, ezin izango du frogatu non jaio zen edo gurasoak zein diren. Izan ere, oro har, Estatu batek, naziotasuna emateko, bi oinarri hartzen ditu aintzat: jaioterria eta gurasoak bertakoak izatea; beraz, seme-alaba erregistratu ezean, aberrigabe-egoeran gera daiteke.
- Estatu batek, naziotasuna emateko edo ukatzeko, diskriminazio-jarduerak aplikatzea: etnia, erlijioa, sexua, arraza eta iritzirik politikoa.
- Pertsona aberrigabe baten seme-alaba izatea.




# ERREFUXIATUAK

Naziotasunak zenbait ondorio ditu, bai herrialde bakoitzaren barruko zuzenbidean, bai nazioarteko zuzenbidean. Hauek dira adibide batzuk:

- funtzio publikoak edo funtzio horietako batzuk egiteko gaitzen du, baita atzerritarrek eskuarki galarazita dituzten zenbait eskubide edo jarduera gauzatzeko ere.
- Pasaportea lortzeko, herrialdera itzultzeko eta, beste herrialderen batean pobrezia-egoeran izanez gero, Estatuak aberriratzeko gaitzen du.
- Norberaren herrialdearen babes diplomatikoa lortzeko gaitzen du, pertsonen eskubideak urratzen dituzten herrialde batean badago.



Ezin da esan aberrigabezia lege-arazo hutsa dela; oinarrian, giza arazoa da. Naziotasunik ez izateak eragin negatiboa izan dezake pertsona baten zenbait alderdi garrantzitsutan; besteak beste, botoa emateko, ondasunak izateko, osasun-laguntzarako, gizarte-segurtasunerako, seme-alaben hezkuntzarako, lanerako eta herrialdetik kanpora legez bidaiatzeko eskubideak galaraz ditzake.




## Aberrigabe ospetsuak

**A**LBERT EINSTEIN ezohizko egoeran izan zen: aberrigabea izan zen XIX. mendean, eta errefuxiatua, XX. mendean. Alemanian jaio zen, baina, 1896an, uko egin zion bere naziotasunari, eta bost urtez, aberrigabea izan zen. 1901ean, suitzar naziotasuna lortu zuen. 1914an, alemaniar naziotasuna berreskuratu zuen, Prusiako Zientzien Akademiako kide izendatu zutenean. 1921ean, Fisikako Nobel saria jaso zuen, efektu fotoelektrikoa azaltzeagatik. Adolf Hitlerrek 1933ko hauteskundeak irabazi eta Alemaniako kantzilerra izatea lortu zuenean, Einsteinek Akademian dimisioa aurkeztu eta bigarrenegun egin zion uko alemaniar naziotasunari, eta errefuxiatua izan zen (baina ez aberrigabea, suitzar naziotasunari eutsi egin baitzion). Estatu Batuetara joan zen. Han, heroi hartu zuten, eta 1940an, estatubatuar naziotasuna lortu zuen.

**1** 978ko maiatzaren 15ean, MSTISLAV ROSTROPOVITXek, munduko biolontxelo-jolerik ospetsuenak, Frantziako telebistako albistegiaren bidez jakin zuen sobietar naziotasuna kendu zietela berari eta bere emazteari, Galina Vishnevskaya Bolshoiko soprano ezagunari, «SESBen izen onaren aurka ekintza sistematikoak» egiteagatik. Erregimenaren arabera, Alexandr Solzhenitsin Nobel saridunari eta *Gulag artxipelagoa* obraren egileari laguntzea izan zen haien krimena. Idazleak bere Moskuko etxea galtzean, ostatu eman zioten beren datxan.



## 3 JARDUERA

GEZI BATEN BIDEZ, KOKATU <u>SUDAN</u>	OSATU DATU HAUEK SUDANI BURUZ	
	HIRIBURUA	
	BIZTANLE KOPURUA	
	BERE ONDOAN DAUDEN HERRIALDEAK	
	HIZKUNTZA OFIZIALAK	
	GIZA GARAPEN INDIZEA (IDH)	
	GAURKO GOBERNU ERA	

### BIZI IZANDAKO GUDEI BURUZKO INFORMAZIOA



# ERREFUXIATUAK

OTOFIZA



Partekatu, mundu guztia bizi dadin,  
hori da, Jesus, gure nahia,  
bide hori erakusten diguzu,  
gizateria berria sortu dadin.  
Biziaren Jauna, lagundu ikusten  
gure ogiak eta arrainak;  
huskeria dira agian  
baina besteekin partekatuz gero,  
senide arteko solidaritatearen hazi izango dira.  
Zabaldu, Jauna, gure eskuak  
gure ondasunak, gure denbora eta dohainak  
partekatu ditzagun,  
anaitasunezko mundua sortu dezagun.  
Erakutsi zure Erreinua eraikitzen.



Ahalegin txiki BAT  
asko izan daiteke beste pertsonen bizitzan.  
BI irribarre sortu daitezke  
elkarri laguntza desinteresatua emanda.

HIRU asmo on  
konpromisozko hiru dohaintza baino hobekak dira.

Zuk daukazuaren  $\frac{1}{4}$   
dena da ezer ez dutenentzat.  
zure eskuko BOST atzamarrek  
buruan duzun ideia batek baino gehiago ematen dute.  
SEI kolorek bizia ematen diote  
dena zuri-beltzean ikusten duenari.

Solidaritatea  
asteko ZAZPI egunetarako da.  
Gosearen ZORTZIa (jatorrizkoa: VUIT, huit = hutsa,  
katalanez)  
arrantzarako kanaberaz betetzen da, ez arrainez.

Guztion esku dago  
mundu BERRIA egitea, aldatzen bagara.  
HAMAR esaldi horiek lagunduko digute  
JAINKOAREN ERREINUA eraikitzen.




# FAMILIA giroaren bila HERRITIK kanpo

Kexatu egiten gara  
jatekoa hotz dagoelako edo itxura eskasa duelako,  
baina beste batzuek ez dute jatekorik ere .  
Guk markako arropak janzten ditugu,  
eta beste batzuek, bigarren eskukoak.  
Guk ez daukagu boluntario-lanak egiteko astirik;  
beste batzuek, ordea, aparteko orduak sartu behar dituzte  
etxera ogia eramateko.  
Behar duguna baino gehiago gastatzen dugu,  
beste batzuek, aldiz, ordu asko egin behar dute lan  
gutxieneko soldata irabazteko.  
Eskolan gauzak falta direlako kexatzen gara,  
hirugarren munduan, ordea, ez dute eskolarik ere.  
Eskoletarako irakasle gehiago eskatzen dugu, arrazoiz,  
baina herrialde batzuetan ez dute irakaslerik.



Maria, zu zara gure bizitzarako eredu.  
Emaguzu arnasa gure nekaldietan.  
Jaso gaitzazu erortzen garenean.  
Izan zaitetz gure lanean gidari.  
Eman adorea arrakasta dugunean.  
Kontsola gaitzazu huts egiten dugunean.  
Lagundu gu garena eta daukaguna partekatzen.  
Lagundu sufritzen dutenak senidetzat hartzen.  
Esperantzaren Ama, gure bizitza  
poz-iturri izan dadila, mundu atsekabetu eta bidegabe honetan.



Aita gurea, zeruetan zaudena,  
seme-alaben artean ogia banatzen duzuna;  
erakutsi gure artean gauza bera egiten,  
etor bedi gugana zure Erreinua  
eta mundu berria sortu  
gure gosea ase dezan  
gure bizitza pozez bete dezan.  
Munduan bada ogirik  
dagoen gosea kentzeko lain,  
Etorriko ahal da, Aita, Jesusek bezala banatzen dakienik.  
Amén.



# Oración de un niño refugiado

VÍCTOR ROJAS

Señor

Yo soy un niño cansado de caminar  
tengo miedo de los caminos  
y de las sombras de la noche

He dormido sobre almohadas de piedra  
puestos los ojos en las estrellas

Acaso, Señor, tú rondas  
de estrella en estrella  
como un niño refugiado  
y todos te miran de reojo  
y te dan puntapiés  
y te piden papeles de identificación  
y te alejan de tu osito de felpa  
y tu tractorcito de madera

Ojalá que no...

Las estrellas tiritan, Señor  
y yo quiero creer que son tus ojos  
que tienen ganas de despertar

El cuerpo de mi padre  
quedó en el jardín  
junto al árbol de cerezas

Madre llora y acaricia mis cabellos ondulados  
y aprieta mis manos y me cubre con su cuerpo

Ya nada saben mis ojos  
sólo de la llama que todo lo abraza

Caminamos  
caminamos  
caminamos



y el fuego nos persigue

Ya no hay lugar en tu tierra, Señor

Los caminos están sembrados  
de lágrimas y minas  
y allá donde los caminos terminan  
dicen que no hay lugar  
para niños con cara de espantapájaros

Estoy cansado, Señor  
he olvidado los cuentos  
de piratas y ballenas azules  
que mi abuelo nos contó  
en tiempos de antes de la guerra

Señor  
cuando mi madre y yo  
lleguemos al final del camino  
dile a la gente que mis pies son ampollas  
a punto de reventar

Diles  
que soy pequeño  
y la Tierra es grande

Diles  
que yo quiero volver a jugar  
a la gallina ciega  
y al puente está quebrado  
con qué lo curaremos  
con cáscaras de huevo, con cáscaras de huevo

Diles que es mentira que Tú has dibujado  
sobre la Tierra  
líneas que separan a la gente





## KONTAKIZUN TRISTE BATEN NORABIDE BERRIA

**S**usmo larriak daude klima-aldaketaren ondorioz zenbait uhartetar estatu erabat desagertuko direla etorkizun hurbilean. Uste da honako hauek daudela arrisku larrian: Kiribati, Vanuatu, Marshall uharteak, Tuvalu, Maldivak eta Bahamak.

Itsasgorek etxeak, lorategiak eta edateko uraren hornidurak suntsitu dituzte dagoeneko Carteret uharteetan, Papua Ginea Berrian. Izan ere, oso litekeena da uharte horiek gutxi barru urpean geratzea zeharo; hain zuzen, 2015erako, Carteret uharteetako 2.000 biztanleak Papua Ginea Berriko beste leku batzuetara eramaten hasiak daude.

Kiribati (93.000 biztanle) eta Tuvalu (10.000 biztanle) estatuak arrisku berean daude, baina askoz arazo larriagoari egin beharko diote aurre; maletak egitea eta beste leku batera joatea baino zerbait gehiago egin beharko dute. Nazio moderno bateko erakunde guztiak —parlamentua, polizia, auzitegiak, hezkuntza eta osasuna— urpean desagertuko dira, koral-atoloi, hondartza eta palmerekin batera.

Uhartetarrek beren estatuak beste lekuren batean berregiten saiatu beharko dute, edo herritartzat hartuko dituen beste estatu bat bilatu, pasaportea emango diena eta bertakoek jasotzen duten babes eta laguntza mota emango diena. Bestela, aberrigabeak izango dira; aberrigabezia-egoeran izango dira ezinbestean.

NBEko Giza Eskubideen Batzordeari 2005ean emandako ikerlan batek hitz gutxitan azaldu zuen arazoa: «Estatuak (...) estatu-ondorengotzari buruzko gaiak lantzen ohituta daude, baina, dirudienez, estatu bat ondorengorik gabe desagertzeari dagokionez, ez dago aurrekaririk...». Halaber, ikerlan horrek agerian jartzen zuen zer ondorio gogaikarri izango



zituen horrelako kasu batek. Ondorio gehienek desagertutako estatuko herritarren eskubideetan izango lukete eragina. Gainera, eskubide horiek errespetarazteko arduraduna zein izango zen ere adierazten da ikerlanean.

Oraindik ez da herrialderik hondoratu, baina, hala ere, milioika pertsona aberrigabe daude, haien edo haien arbasoen estatuak itxuraz aldatu direlako. Estatuak modu abstraktuan alda daitezke; besteak beste, estatuak sortu, zatitu, deuseztatu, deskolonizatu, konkistatu eta askatu izan dira.

Estatu batean horrelako aldaketarik gertatzen denean, oso garrantzitsua da

herritarra nor den —eta nor ez den— erabakitzea. Prozesu horretan bazterrean geratzen direnek ez dute nora jo. Beren egoera aldatu ezinik, gizarteko bazterretara bultzatzen ditu burokraziak, eta han, gizarte-egoera ahulean eta pobretuta egoten dira, eta ahaztuta.

Klima-aldaketa etetea ikaragarri zaila izango da. Haren ondorio berezi hau prebenitzea, ordea, nazioarteko komunitateko ahalmen kolektiboen eskura dago.

**Laguntzailea:**

**bbk**



San Francisco, 12A-3º  
48003- BILBAO

<http://procladeyanapay09-10.nireblog.com/>